

Gurutzatua alemaniar erara

CLERMONT (FRANTZIA), 1095. Eliza katolikoaren kontzilioan, Urbano II.a aita santuak sinesgabeen aurkako borrokan bat egiteko deia egin zien kristau guztiei. Lehen Gurutzadara deitu zituen, alegia.

Hilabete batzuk lehenago, Alexo I.a Komneno bizantziar enperadoreak enbaxadore bat bidali zuen aita santuarengana, turkiar seliuzidak mende hartzeko laguntza eske. Urbano II.ak gurutzearen zutoihalaren babesean kristaudi osoa batzeko aukera bikaina ikusi zuen, bizantziarrek galdutako lurraldeak errekuperatzeaz gain, kristau ejertzitoak Lur Santura eraman eta Jerusalem berreskuratzuz.

Frantziaren eta Germaniar Inperio Santuaren gidaritzapean, zaldunek, soldaduek eta herritar xehe askok bat egin zuten “Jainkoak hala nahi du” lelopeko kanpainan itzelarekin; batzuk kristau fanatikoak ziren, beste batzuek ez zuten nora joan eta Gurutzada harrapakina lortzeko aukeratzat zuten. Azkenean, migrazio masibo eta arrakastatsua bihurtu zen. 1099an, aita santua hil zen urte berean, Jerusalem konkistatu zuten. Baina gudu-zelaian hildakoen kopurua izugarria izan zen, eta ez zen erraza guztien –edo, behintzat, pribilegiadunen– azken nahia betetzea.

Familia nobleko zaldun gehienek, hilez gero, beren gorpua sorterrira eraman zezaten eskatzen zuten. Baina



Gurutzatuak turkiarren aurka borrokan. Miniaturan biktima guztiak turkiarrek dira eta haien gorpuak txikituta ageri dira. Gudu amaiztean, teutoiek gauza bera egiten zuten beren hildakoekin, baina arreta eta maina handia jarrita.

gorpuzkinak, laurdenkatuta, pertzetan irakiten uzten dituzte luzaroan. Haragia, tendoiak eta kartilagoak hezurretatik bereizten dituzte. Ondoren, hezurak ardo lurrindutan bustitzen dituzte eta espeziatan hautsezta-tzen. Eta, azkenik, etxera eramaten dituzte”. Hala, infekzio gune astunak zirenak, bidaia-lagun atsegin bihurtzen zituzten: garraiatzen errazak ziren, eta usain goxoa zuten, gainera.

1300ean, sukaldaritza jarduera bitxiaren praktikotasunari muzin eginez, Bonifazio VIII.a aita santuak *De Sepulturis* bulda promulgatu zuen: eskumikuaren azpian, debekatua zegoen gorpuak laurdenkatzea eta egostea, hezurak eta haragia bereizteko. Baina, ordurako azken gurutzada amaitua zen ordea, eta zaldun teutoien hezur garbiak, aspaldiko atsedenean. ■



Arrastoak

Keep calm and...



KEEP CALM AND... eta orotariko amaiera duten esaldiak edonon daude azkenaldian: sare sozialetan, elastikotan, kikaretan eta, oro har, edozein souvenir edo merchandising euskarran.

Fenomeno biral nahiko berria izanagatik, jatorria II. Mundu Gerran

du denetarako balio duen egiturak. 1939an Erresuma Batuko Informazio Ministerioak, herritarrei adone emateko, hainbat afixa zabaltzea erabaki zuen; horregatik esaldiaren gaineko koroa. Afixa horietako batek: *Keep calm and carry on* (lasai eta segi aurrera) zioen. ■